

Ene ama zenari

Bertsolariek erakusten dituzte beren sendimenduak edozein gaiari buruz, hor agertzen baituzte beren bihotzak agintzen dabena, berdin bat-bateko bertsotan nola idatziz egin dutenetan ere. Nik uste dut bertso idatzietan bertsolariek erakusten dutela beren bertsolaritzaren malla eta maite duten gaia erabiltzen badute orduan eta gehiago nabarmentzen direla bihotzan dauzkaten sendimendu hunkigarriak. AMA dugu gai bat aski ona bertso hunkigarriak moldatzeko eta AMA baitugu aipatzen dutenean beren bertsoak badu mami berexi bat, gizakiek AMA baitugu lehenbiziko maitalea eta bihotzean daukaguna. XALBADOR zenak bere amari eskeinitako bertsoak badute halako sendimendu hunkigarri bat, hor erakusten baitu bere bihotzak sendi duena, amarenganako maitasuna.

Xalbadorrekin «Odolaren mintzoa» liburuan agertzen dituen bertso aipagarri hoietan erakusten ditu bertso hunkigarriak eta bere bihotzak agintzen dizkionak, denak goi-mailakoak eta bihotza ukitzen dutenak. Hemen erakutsiko ditugu XALBADOR-ek bere AMA zanari eskeiñi zizkion bertso hunkigarriak. Hameka bertsoetatik, sei bakarrik argitaratuko ditut:

Ama, nola zure belaunetan nundadukazun denboran,
utz nezazu zure bularrean burua
pausa dezadan;
ene bihotzak zer sendi duen nai
baiterautuzt erran,
zure ezpain sakratuetarik ikasi
nuen mintzairan.

□ □ □

Ene deia amodioaren bitartez zinen entzun,
eta gero oinazen erdian mundurat

eman ninduzun;
biziaren grazia lehenik, gero
hoinbertze maitasun,
berat jakin dut ama maitea, zen-
dako eman dautazun.

□ □ □

Orroit naiz, inozent bat bertzerik
ez nintzaneko bizitzan,
ama, zer artak eta pilpirak nitaz
zinituen izan;
kartsuki miresten ninduzula zeru-
k'angeruen gisan,
ez aingeru bat nintzelakoan, bai-
nan zurea bainintzan.

□ □ □

Geroxeago, gaizkirako griñak ni
baitan piztearekin,
zure oharrarazpen zorrotzak etzit-
zaizkidan atsegin;
ene adimendu errebelak ez bait-
zuen nahi jakin,
amodioz nahi zinuela nitarik gi-
zon bat egin.

□ □ □

Alabainan ez nuen nik anbat kon-
prenitzen gizongoan,
are gutiago zuk enetzat zinuen
amodioan;
atsegingarriena nodik zen, handik
nahi nuen joan,
ene nahia bete zadien baizik ez
nuen gogoan.

□ □ □

Errexki konprenitu dut, ene bura-
sogoko bizian,
ama, zer pairarazi dautzudan eza-
gutza eskasian.
Kezka hori ene lagun duket ene
bizitza guzian,
hoibertzede damutzen zautan hutsik
ez baitut kontzientzian.

M. Izeta

Berri ona

Jaunak errana

«Jendea pillatu zen Jainkoaren itza entzuteran»
(Lk.5,1-11)

MEZAREN zatirik nagusienetakoa da Itzaren Liturgia. Jainkoa bera da erriari mintzo zaiona.

Jaunaren Itza otsegiten eta entzuten dugunean ez da nai izaten katekesia, ez da ere buruz ikasi bearreko lezioa eskaiñi.

Guk mezan entzuten dugun Jaunaren Itza Jainkoak guri ematen digun salbazioaren historia berritzea da. Ortik, beraz, arretaz entzutearen premia eta komenientzia.

Ala ta guztiz ere, katekesiaren premiarik badu jendeak Jaunaren Mintzoa ondo ulertzeko: Gure kristauak ez diote garrantzi sakonik ematen Irakurgaiaren aldiari. Naiz eta aspergarriagoa gerta naigo dute apezaren «sermoia» entzun Jaunaren Itza sakondu baiño.

«Jendea pillatu zen Jaunkoaren Itza entzuteran» erran digu Ebanjelioak. Bai al dakigu entzuten? Entzutea gizakiak bakarrik aske egin dezaken ekintza bat da. Entzuteak beti nai izatea eskatzen du. Eta iñork ezin dezake iñor entzutera beartu.

Entzun nai duenak zerbait jakin nai du. Entzuteak bestea onartzea esan nai du. Entzuteak elkarriketa errespetagarria eskatzen du. Baiña izketan asi aurretik besteak errana ausnartu, gozatu, landu eta gure egin dugula erran nai du entzuteak.

Bear-bearrezkoa da entzuten jakitea gero elkarriketa sortzeko. Entzuteko kapaz ez dena ez da gai elkarriketarako.

Elizak ere entzuten ikasi bear du. Jaunaren Itzak beti izango du Elizan indar eraginkorra. Baiña indarra izango badu, entzuten ikasi bear leenbi-zi. Eta Elizak bai al daki entzuten? Eta eliztarrok?

Puri-purian daude Elizari egiten zaizkion kritikak. Nondik egiten zaizkio kritika oiek? Nork egiten ditu kritika oiek? Edonork egin al dezake?

Eta Elizak entzuten al du guztia? Gauza asko argitu bear dira Elizan eta eliztarren artean. Entzuteak ez du erran nai, noski, «amen» erratea beti eta kritikatzek ere ez du adierazi nai beti arrazoiarekin kritikatzeko denik.

Eta geure barruari... entzuten al diogu? Bai al dugu astirik geure barnera begira jarri eta gure baitako aotsari entzuteko? Inportantea da geure abotsa entzutea. Nori entzungo ba-da, geurea entzuten ez badugu?

Jendea entzutea ere oso garrantzizkoa da. Jendeak badu egun zer esanik eta guk ba-dugu zer entzunik jendearengandik. Jakintsuei eta adituei bakarrik ez zaie entzun bear, pertsona orok du zer errana eta zer adierazia. Komeni da oieri ere entzutea.

Eta munduari entzuten al diogu? Mundua ona da eta munduak ere badu zer erakutsirik eta zer esanik. Mundua entzutea oso inportantea da kristauarentzat. Kristauak munduan bizi bear du fedea eta munduan oreku bear du bizi. Zerbait errateko duen orori entzun bear zaio.

Artzalluz'tar Joxemari


Katalauni'ko elizaren kontzilioa

Orrelako gertakizunak beren zentzu egokian edozeinek ulertu ditzan, bearrezkoa izanen dugu izen batzuen esaneria azaltzea. «E-liza», Aitasantuaren esaneria gau- den kristau guztion kopurua da. Eliz orri «Orokorra», erdera guztie- tan «Universal», esan oi zaio. Ba- ñan Eliz Orokor ori, Eliz «banaka- ko» edo «partikularrez» osoturik dago. Zentzu motxago ortan, «Eli- za» itzak «diozesi» edo «elizbarruti» esan nai du. Orrela, Iruña'ko Eliza, Iruña'ko gotzaiak zuzentzen duen elizbarrutia da. Eliz berezi banaka- ko oiek taldeetan bildurik daude Eliz Orokorraren altzoan. Eta talde oietako bakoitzari «Probintzia» esan oi zaio mundu guztian, eta Probintzi bakoitzeko uriburuko gotzaiari, «goigotzai» edo «artzo- bispo» eta «metropolitza». Adibidez, Iruña'ko goigotzaiaren zuzendarit- zapean, Jaka, Logroño, Donosti eta Iruña bereko Elizak, Eliz-talde bat osotzen dute: Iruña'ko Eliz- Probintzia. Eraberean Katalauni- 'ko zortzi Elizak Tarragona'koa: Tortosa, Tarragona, Bartzelona, Bik, Jerona, Urjel, Soltsona ta Le- rida'koek, Tarragona'ko goigotzai- buru dutela.

Orrelako Probintzi-Kontzilioak eten gabe egin izen dire Elizaren lenen-urteetatik asita; eta egingo dire etorkizunean ere. Emaizta on aundikoak izaten bait dire kris- tauten barne-bizitzarako. Maiz aski, orde, sortu izen dute zurrumurru- rik aski. Eta sortuko du, seguruas- ki, Tarragona'ko onek ere. Zergai- tik? Elizatik kanpoko jendeak orrelako Kontzilio oietan politikeri utsa ikusi oi dutelako.

- Abil kontuz, Bixente, -esango dit Don Prudentzio adiskide zaar- rak, Tarragona'ko Probintzi-Kon- tzilio ortan politika usmatuko du- ten jenderik geienak kristauak izengo dituk-eta. Eliz Amaren seme zintzoak.

- Egia, Don Prudentzio; bañan era ortan maxiaketan asten dire-



nean, kristau bezala ez beño poli- tikalari uts petralak bezala ibiltzen dire. Elizatik kanpoan egoten da beren burua orrela pentsatzen du- tenean.

Eta, ziurki, oraingoan ere sortu- ko bait dira, Balladolib'ko Probint- tzi-Kontzilio batek sortuko ez lituz- keen esamesak, jakin bezate onako au, bein betirako, kolore guztia- ko politikazale nazionalistek:

- Eliza, Kristo'ren Eliza, mundu ontako nazio guztien gaiñetik da- goela, bedi Españi nazio ori, bedi Katalauni, bedi Euzkadi, edo bedi Kosta Rika edota Guatemala.

- Kontzilio bat, soilki Elizaren auzia dela. Orregatik, Elizaren Buru Nagusia den Aitasantuari bakar- bakarrik dogokiola Kontzilio ba- ten epaiketa. Ez, iñolaz ere, Estadu edo Laterri, Jaurilaritzetako Lenda- kari, eta alderdi politikoetako jen- deei.

Alatagutziz, begien aurrean daukagun arazoa da-ta, esan de- zagun Eliz-Probintzi oietako bat- zuk, gaizki eraturik daudela. Iruña- 'ko probintzian, adibidez, Jaka eta Gipuzkoa, alkarrekin ezertan an-

tzarik ez duten lurraldeak dire. Ara- ba eta Bizkai Burgos'ko Probint- zian sarturik daude, Soria eta Palentzi'rekin batera. Palentzi'ko lur legorretan gaztelaraz mintzatuz lan egiten duten nekazariak, eta Bizkai'ko mendi busti ezeetako ba- serritarak beño jende ezberdiña- gorik aurki al diteke?

Iruña'ko Goigotzai Metropolita- ren zuzendaritzapean, Araba, Baiona, Bizkai, eta Gipuzkoa'ko elizbarrutiak Nafarroa'ko elizba- rruti zarrari alkartuz, Probintzi berri bat, Iruña'ko Eliz-Probintzia mol- datzea jex al litzake gauza zuzena- goa ta egokiagoa izengo? Ori era- bakitzea, Elizaren eginkizuna da. Eskatzea, orde, izen diteke gurea.

Latiegi'tar Bixente

Ail, adiskideok. Urtarrillaren 23'a da. Atsaldeko 4'terdik, idaz- keta au bukatu dutanean. Oraintxe entzun dut pizturik daukadan irra- titik ETA'k Ordoñez il duela. Kupi- dagarriak zarate ETA'ko pistolari mixeable oiek. Orrenbeste gustat- zen zaizute giza-odol ixuri-berria- ren usaia?

Barañain euskal kabia

Nafarroa'n, irietan ederrenetakoa Barañain dugu, baita ere berriena. Orain dela ogeitamar urte, eliz txiki baten inguruan bizpauri etxe zeu- den, eun inguru gizasemeak. Gaur, 18.943 biztanle ditu; Nafarro'ko iru- garren iria, Iruña ta Tuter aurretik dijoaz. Egunero aunditzen doa. Gai- ñera iri guztiz ederra dela esan bear. Ba dauzkate argi bete beteak eta zelaia. Antzira egokia egin dute er- dian, belaze atsegiñak ondoan uga- ri. Argia nunaitik sartzen zaie, aizea ere naikoa. Karrikak zabalak ditu, etxe sendoak, lorategiak nunai, zu- gaitzak ugari. Europa'ko edozein aberriarentzat eredu bikaña da, iri arrigarria.

Barañain Zizur'tik ebakita, berez- ko udala egin zuten, 1984'garren urtean. Euskaldunak eundik ama- bortz dire, iru milla inguru. Ikastet- xetan nabaritzen da iri ortan dagon euskal nortasuna. Zenbakiak min- to. Bi ikastetxe zoragarri dituzte, sendoak eta argiz josiak, berri be- rriak, jolastoki alaiekin apainduak. Alaiz delakoa, 1982'garren urtean sortu zuten. Seireun ikasle ditu. Oyetatik 330, eredu -D delakoan sartuak daude, euskeraz gai guztiak ikasten ari dire. Denetara berrogei irakasle dituzte, oyetatik ogei eus- kaldunak. Eultza delako ikastetxea berriagoa da, 1987'garren urtean eraikia. 575 ikasle daude, oyetatik 260 -D eredu. Irakasleak denera ogeitamairu dire; amasei euskaldun- ak.

Euskal sariak ikasle aunitzek jaso dituzte; Alaiz'en Ainoa Ibarrolak, Mikel Lazkozek, Imanol Laspideak,



Eultza'n berriz Aitziber Kanpionek, Leyre Bidondok.

Eziketa aldetik, urrats berriak ematekotan daude 1995'garren ur- tean asita; Alaiz dena euskeraz izan- go da eta Eultza dena erderaz. Bi ikastetxetan asieratik euskara ema- ten zuten.

Ezin dugu aztu euskaltegia. Gueskolara badatoz berreun ikasle, Argandoña ikaslearen ardurapean, Lezaun'dar euskaldun berria dugu.

Udalan, euskaldun arduraduna laister eskuratzekoak dire. Euskal kulturaren aldetik, ortxen ari zaigu lanean eten gabe, udaleko maikidea Mikel Erdozain.

Ba dute, ere, txistulari talde ede- rra, amabi kidekin. Eresi ikasketetan zortzireun ikasle zenbatzen dituzte.

Andra Mari elizan euskal elizkizu- nak Esteban Irigoyen apaiz euskal- zaleak ematen ditu; larunbatetan seiterdian euskal Meza. Irurogei eliztar datozkio. Urtero. ba dituzte euskaraz lenengo jaunartzeak.

Gauza aundi bat bezala aipatu bearra, Udako euskal ekintzen era- ketetako liburua. Gai anitz ikutzen dituzte; aurren antzerkia, irratirako leyaketak, eskulangintza, euskal jo- lasak, itzaldiak, txalaparta, guesko- lak, sukaldaritza, itzulpenak, ZEBE- RRI aldizkaria. Liburu au urrearekin ordaindu dezakegu. Eredu ederra Nafarro osorako.

Egitan, Barañain iria euskal kabi berri ta guztiz arrigarri dugu.

Latzaga